

2004. urteko lehenengo hiruhileko EParen datuei buruzko LABen balorazioa.

INEk argitaraturiko datuen arabera, Hego Euskal Herrian gutxitu egin da landun kopurua eta hazi egin da langabezia. Lehenengo hiruhileko emaitzak oso desberdinak dira 4 lurralde historikoetan, Gipuzkoa eta Bizkaiako datuak izanik negatiboenak.

2004. urteko lehenengo hiruhilekoan 10.600 pertsona inguruan gutxitu da Hego Euskal Herriko landun kopurua eta 11.200 langabetu gehiago erregistratu dira; beraz, datu hauek aztertuz baieztatu dezakegu lan merkatuaren bilakaera oso negatiboa izan dela urteko lehenengo hiru hilabeteetan.

4 lurralde historikoak bereizirik aztertzen baditugu, ikus daiteke Nafarroa eta Arabako datuak onak ez diren arren, Gipuzkoa eta Bizkaiakoak oso negatiboak direla:

Nafarroan 1.200 lanpostu sortu ziren baina guztiak gizonetzkoentzat izan ziren; gainera, emakumeen langabezia 500 unitatetan handitu zen, emakumezkoen langabezia-tasa gizonetzkoenaren bikoitza izanik (%8,64 eta %4,27 hurrenez hurren).

Arabian, 2.300 emakumek enplegua lortu zuten arren beste 1.300 emakumek berea galdu zuten, eta emakumezkoen langabezia-tasa %14,81 izatera iritsi zen (%4,85ekoa da gizonetzkoena), herrialde historiko guztietako altuena.


Baina datu negatiboenak Gipuzkoa eta Bizkaiakoak dira; bi herrialde hauetan langabezia handitzeaz gain landun kopurua ere gutxitu egin da.

Gipuzkoan 7.500 langilek galdu zuten beraien lanpostua eta emakumezkoen langabezia 3.400 unitatetan handitu zen; bestalde, Bizkaietan, 6.100 emakumek galdu zuten enplegua eta langabezia 7.600 pertsonatan hazi da, langabezia-tasa %11,43ra iritsiz.

Baina gainera, sortzen ari den lan apurrak lan baldintza prekarioak dituela salatu nahi dugu, emakume eta gazteen kasuan batez ere, aldi baterakotasunaren hazkunde handiarekin.

Konkretuki, 2004. urteko lehenengo hiruhilekoan, Hego Euskal Herrian sinatu ziren kontratuen %90,9 aldi baterakoa izan zen (%92 emakumeen artean eta %94 gazteen artean).

Kontutan izanik bihar Lan Osasunaren Nazioarteko Eguna dela, interesgarria da aldi baterakotasunak lan istripuetan eragin zuzena duela gogoraztea, izan ere, aldi baterako kontratua duen biztanleko landunaren istripu tasa kontratu mugagabea duenaren bikoitza baino handiagoa baita (%117,2 eta %52,5 hurrenez hurren).



Iturria: Lan eta Gizarte Gaietarako Ministeritza eta INE.

Beraz, LABek ezinbestekotzat jotzen du aldi baterako kontratu desberdinekin patronalak egiten duen iruzurrarekin amaitzea prekaritate eta istripu maila izugarri hauekin amaitzeko, eta dei egiten diogu langilego guztiari egoera hau salatzeko bihar buruturiko diren mobilizazio desberdinetan parte har dezan.

Gai Ekonomikoetarako Idazkaritza